**ITSAS-LEHORREKO JABARI PUBLIKOKO BABES-ZORTASUN EREMUAN OBRAK GAUZATZEKO BAIMEN-ESKAERA BETETZEKO INFORMAZIO-ORRIA**

**HOJA INFORMATIVA PARA CUMPLIMENTAR LA SOLICITUD DE AUTORIZACIÓN PARA OBRAS EN ZONA DE SERVIDUMBRE DE PROTECCIÓN DEL DOMINIO PÚBLICO MARÍTIMO-TERRESTRE**

## 1 HELBURUA

Dokumentu honen xedea da pertsona eskatzaileari itsas-lehorreko jabari publikoko babes-zorpeko eremuan obrak egiteko baimenak dakartzan izapideei buruzko informazioa ematea, bai eta zein datu edo agiri aurkeztu behar diren adieraztea ere.

## 1 OBJETIVO

El objetivo de este documento es informar a la persona peticionaria sobre la tramitación que conlleva la autorización para ejecutar obras en la Zona de Servidumbre de Protección Marítimo Terrestre, e indicar los datos o documentos que deben aportar.

## 2 NORK EGIN BEHAR DU ESKAERA

Itsas-lehorreko babes-zorpeko eremuan obra edo instalazioak egin nahi dituen pertsona edo erakunde orok baimena eskatu beharko du nahitaez. Aipatutako eremuan baimen gabe obrak gauzatzeak baliteke zehapenak ekartzea.

Itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa babesteko zortasun-eremuan dauden eraikuntza edo instalazioak konpondu, hobetu, finkatu eta berritzeko obren kasuan, F.O.-0004 formularioa bete beharko da, eskuragarri hemen: https://www.uragentzia.euskadi.eus/informazioa/tramiteak/webura00-contents/eu/

## 2 QUIÉN DEBE SOLICITAR LA AUTORIZACIÓN

Cualquier persona o entidad que pretenda realizar obras e instalaciones en zona de Servidumbre de Protección Marítimo Terrestre deberá solicitar la preceptiva autorización. Ejecutar obras en dicha zona sin disponer de la misma podrá ser objeto de sanción.

En el caso de referirse a la realización de obras de reparación, mejora, consolidación y modernización en construcciones o instalaciones existentes en la zona de servidumbre de protección del dominio público marítimo-terrestre se cumplimentará el formulario F.O-0004 disponible en https://www.uragentzia.euskadi.eus/tramites/webura00-contents/es/

## 3 NON ETA NOLA ESKATZEN DA

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio-Prozedura Erkidearena) 14. artikuluan ezartzen ditu administrazio publikoekiko harremanetan bide elektronikoak erabiltzeko eskubidea eta betebeharra. Xedatzen du, horretarako, administrazio publikoekiko harremanetan edozein izapide administratibo egiteko bitarte telematikoak erabili behar dituztela pertsona juridikoek, nortasun juridikorik gabeko erakundeek, elkargokide izatea nahitaezkoa den lanbide-jardueraren bat egiten dutenek, Administrazioarekiko harremanetan bide elektronikoak erabiltzera behartuta dagoen interesdunen bat ordezkatzen dutenek, eta, azkenik, administrazio publikoetako langileek, langile publikoak diren aldetik administrazio publikoekin egiten dituzten izapide eta jarduketetarako. Administrazio bakoitzak erregelamenduz zehazten duen moduan erabili behar dira bide elektronikoak. Beraz, hauek telematikoki aurkeztu beharko dute eskabidea, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan www.euskadi.eus webgunean.

Pertsona fisikoentzat, espedientea izapidetzeko bete behar diren datuak eta aurkeztu behar diren agiriak jasotzen dituen

## 3 CÓMO Y DÓNDE SE SOLICITA

La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de la Administraciones Públicas establece en su artículo 14 el derecho y la obligación de relacionarse electrónicamente con las Administraciones Públicas. Obligatoriedad que atañe a las personas jurídicas, las entidades sin personalidad jurídica, a quienes ejerzan una actividad profesional para la que se requiera colegiación obligatoria, a quienes representen a un interesado que esté obligado a relacionarse electrónicamente con la Administración y, finalmente, a los empleados de las Administraciones Públicas para los trámites y actuaciones que realicen con ellas por razón de su condición de empleado público, en la forma en que se determine reglamentariamente por cada Administración. Por lo tanto, estos deberán presentar la solicitud telemáticamente a través de la sede electrónica de Gobierno Vasco www.euskadi.eus.

Para las personas físicas, existe un modelo de solicitud de declaración responsable donde figuran los datos que deben

945011700

Boulevard eraikina - Edificio Boulevard
Gamarrako atea kalea 1A, 11. solairua
C/ Portal de Gamarra 1A, planta 11
01013 Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava)

Urkixo zumarkalea 36, 7. solairua
Alameda Urquijo 36, planta 7
48011 Bilbao (Bizkaia)

Intxaurrondo kalea 70, 1. solairua
C/ Intxaurrondo 70, planta 1
20015 Donostia/San Sebastián
(Gipuzkoa)

eskaera-eredu bat dago. Eskaera betetakoan, beharrezko agiriekin batera, hemen aurkeztu ahal izango da

- Egoitza nagusiko edo arroen bulegoetako sarrera-erregistroak:
  - URAREN EUSKAL AGENTZIA
    Boulevard eraikina
    Gamarrako atea kalea 1A, 11. Solairua
    01013 Vitoria-Gasteiz.
  - URAREN EUSKAL AGENTZIA
    Urkixo zumarkalea 36, 7. solairua
    48011 Bilbao.
  - URAREN EUSKAL AGENTZIA
    Intxaurrondo 70, 1. solairua
    20015 Donostia/San Sebastián.
- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluak jasotzen dituen lekuak.

## 4 ITSAS-LEHORREKO BABES-ZORPEKO EREMUAK

Kostaldeari buruzko uztailaren 28ko 22/1998 Legeak (aurrerantzean Kosta Legea) eta urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuan onartutako Kostaldeko Erregelamendu Orokorrak (aurrerantzean Erregelamendua) itsas-lehorreko jabari publikoko ondasunak definitzen dituzte, bai eta haren lege-zortasunak eta, zehazkiago, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoa babesteko zortasun-eremua ere.

- **ITSAS-LEHORREKO JABARI PUBLIKOA:** Itsas-lehorreko inguruak, hondartzek, barruko urek, jurisdikziopeko urek eta ekonomia-eremuko eta plataforma kontinentaleko baliabideek osatzen dute itsas-lehorreko jabari publikoa, 1978ko Konstituzioak xedatzen duenez eta kostaldeari buruzko araudiak zehazten duenez. Itsas-lehorreko jabari publikoa osatzen duten ondasunak Kosta Legeko 3, 4 eta 5. artikuluetan eta Kostaldeko ErregelamenduOrokorreko 3, 4, 5, 6, 7 eta 8. artikuluetan daude arauturik. Praktikan, itsas-lehorreko jabari publikoari dagozkion ondasunak mugaketaren administrazio-prozeduraren bitartez zehazten dira.
- **Itsas-lehorreko babes-zorpeko eremua:** Oro har, itsasertzaren barruko mugatik lehorrerantz neurtuta, 100 metroko eremuan ezartzen da. Zortasun hau 20 metrokoa da oro har, Kostaldeari buruzko Legea indarrean sartzean jada hiri-lurtzat sailkatutako lursailetan.

  Estatuko Administrazio Orokorrak, dagokien autonomia-erkidego eta udalen arabera, eremu honen hedadura 100 metrotan handiagotu ahal izango du gehienez, zortasunaren

cumplimentarse y la documentación que es necesario aportar para tramitar el expediente. Una vez cumplimentada y firmada, la declaración responsable se podrá presentar, junto con la documentación requerida, en:

- Los registros de entrada de la sede central o de las oficinas de cuenca:
  - AGENCIA VASCA DEL AGUA
    Edificio Boulevard
    C/Portal de Gamarra 1A, planta 11
    01013 Vitoria-Gasteiz
  - AGENCIA VASCA DEL AGUA
    Alameda Urquijo 36, 7ª planta
    48011 Bilbao.
  - AGENCIA VASCA DEL AGUA
    Intxaurrondo 70, 1ª planta
    20015 Donostia/San Sebastián.
- Aquellos lugares que recoge el art. 16 de la Ley 39/2015, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

## 4 ZONAS DE SERVIDUMBRE DE PROTECCIÓN MARÍTIMO-TERRESTRE

La Ley 22/1988 de 28 julio, de Costas, en adelante Ley de Costas, y el Reglamento General de Costas, en adelante Reglamento, aprobado en el Real Decreto 876/2014 de 10 de octubre, definen los bienes de dominio público marítimo-terrestre, así como las servidumbres legales del mismo, y en concreto la zona de servidumbre de protección del dominio público marítimo-terrestre.

**DOMINIO PÚBLICO MARÍTIMO-TERRESTRE (DPMT):** El dominio público marítimo-terrestre lo constituyen la zona marítimo-terrestre, las playas, las aguas interiores, el mar territorial y los recursos naturales de la zona económica y la plataforma continental, según establece la Constitución de 1978 y siendo la normativa de Costas la que precisa y define estos conceptos. Los bienes que constituyen el dominio público marítimo-terrestre, vienen regulados en los artículos 3, 4 y 5 de la Ley de Costas y en los artículos 3, 4, 5, 6, 7 y 8 del Reglamento General de Costas. En la práctica, los bienes que pertenecen al DPMT se determinan mediante el procedimiento administrativo del deslinde.

**ZSPMT:** En general, recae sobre una franja de 100 metros medida tierra adentro desde el límite interior de la ribera del mar. Esta servidumbre, en los terrenos ya clasificados a la entra en vigor de la Ley de Costas como suelo urbano, pasa a ser de manera general de 20 metros.

La extensión de esta zona podrá ser ampliada por la Administración General del Estado, de acuerdo con la Comunidad Autónoma y el Ayuntamiento correspondiente,

eraginkortasuna bermatzeko beharrezkoa denean. (Erregelamenduko 44.2. artikulua).

Ibaiertzetan, itsasaldiek eragiten duten tokiraino, eremu horren azalera murriztu ahal izango du Estatuko administrazio orokorrak, dagokien Autonomia Erkidego eta Udalaren arabera, asko jota 20 metroraino, hainbat irizpideren arabera. (Kostaldeari buruzko Legearen 27.1 artikulua).

Itsas-lehorreko jabari publikoaren eta babes-zorpeko eremuaren mugaketa Uraren Informazio Sisteman kontsulta daiteke: https://www.uragentzia.euskadi.eus/uraren-euskal-agentziaren-informazio-geografikoko-bisorea/webura00-minima/eu/

- **IGAROBIDE-ZORTASUNEKO EREMUA:** igarobide-zortasuna ezarriko da 6 metroko eremuan, itsasertzaren barruko mugatik lehorrerantz neurtuta. Eremu hori une oro zabalik utzi beharko da, oinezkoak igarotzeko eta jagoletza-nahiz salbamendu-ibilgailuentzako, babestutako eremuetan izan ezik. (Erregelamenduko 52. artikulua).




hasta un máximo de otros 100 metros, cuando sea necesario para asegurar la efectividad de la servidumbre. (Art. 44.2 del Reglamento).

En las márgenes de los ríos hasta donde sean sensibles las mareas, la extensión de esta zona podrá reducirse por la Administración General del Estado, de acuerdo con la Comunidad Autónoma y Ayuntamiento correspondiente, hasta un mínimo de 20 metros, conforme a diferentes criterios. (Art. 27.1 de la Ley de Costas).

Se puede consultar el deslinde del DPMT y la ZSPMT en IDE URA web:
https://www.uragentzia.euskadi.eus/visor-de-informacion-geografica-de-la-agencia-vasca-del-agua/webura00-minima/es/

- **ZONA DE SERVIDUMBRE DE TRÁNSITO (ZST)**: la servidumbre de tránsito recae sobre una franja de seis metros, medidos tierra adentro a partir del límite interior de la ribera del mar. Esta zona deberá dejarse permanentemente expedita para el paso público peatonal y para los vehículos de vigilancia y salvamento, salvo en espacios sujetos a cualquier régimen de protección (Art. 52 del Reglamento).




## 5 AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

**DOKUMENTAZIOA AHAL BADA, ARTXIBO ELEKTRONIKO INDEPENDENTEETAN AURKEZTU BEHAR DA.**

**1. KASU GUZTIETAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO OROKORRA:**

- Eskaera-orria, behar bezala beteta.
- Ordezkaritza-egiaztagiria, behar denean
- Udalaren hirigintza-egiaztagiria, erabilpena indarrean dagoen plangintzari egokitzen zaiola egiaztatzen duena.

**2. HALA DAGOKIONEAN:**

- Ingurunean izango den eraginaren ebaluazioa eta eragin hori murrizteko zuzenketa-neurri aurreikusiak.
- Itsas-lehorreko jabari publikoa okupatzeko kontzesio-titulua edo kontzesio-eskaera.

## 5 DOCUMENTACIÓN QUE DEBE APORTARSE

**LA DOCUMENTACIÓN DEBERÁ PRESENTARSE PREFERENTEMENTE EN ARCHIVOS ELECTRÓNICOS INDEPENDIENTES.**

**1. DOCUMENTACIÓN GENERAL QUE SE DEBE APORTAR EN TODOS LOS CASOS:**

- Modelo de solicitud, debidamente cumplimentada.
- Documento que acredite la representación, en caso necesario
- Certificado urbanístico municipal que acredite la adecuación del uso al planeamiento urbanístico municipal.

**2. CUANDO PROCEDA**

- Evaluación de efectos sobre el medio y medidas correctoras previstas para minimizar tal incidencia.
- Título concesional o solicitud de concesión de ocupación del dominio público marítimo-terrestre.

3. **OBRA TXIKIETARAKO,** hau da, teknika erraz eta eraikuntza eta ekonomia izaera txikikoak, zimenduetarako egitura elementurik gabeak eta lur mugimendurik eskatzen ez dutenak:

- Memoria deskriptiboa.
- Kokapen-planoa.
- Oinplanoa (edo plantaren krokis kotatua eta eredu-sekzioa).

4. **OBRA HANDIETARAKO,** beste edozein obra**:** OINARRIZKO PROIEKTUA EDO ERAIKUNTZA-PROIEKTUA, GUTXIENEZ HONAKO HAUEK BARNE HARTUZ:

- Memoria deskriptiboa
- Kokapen-planoak.
- Plano topografikoa.
- Itsas-lehorreko jabari publikoaren eta bere babes-zorpeko eremuaren mugaketa adierazten duten eskalazko oinplanoak (uneko egoera eta etorkizunekoa).
- Sekzio-planoak (uneko egoera eta etorkizunekoa).
- Aurrekontua.
- Lehentasunezko fluxu-gunean egingo diren eta lurzoru urbanizatuko oinarrizko egoeran dauden jarduera guztietarako:
  - Eskatzailearen berariazko adierazpena; bertan jaso behar du eraikin berriaren arriskua ezagutzen duela eta bere gain hartzen duela, eta kasu horretan aplikatu behar diren babes zibileko neurriak jaso behar ditu. Hori gorabehera, babesteko beste neurri osagarri batzuk ere hartu ahal izango ditu.

Hala dagokionean, Agentziak eskatu diren jarduerak baimenduko ditu, baldin eta sustatzaileak Jabetza Erregistroaren ziurtagiria badu, eta, ziurtagiri horretan, eraikina lehentasunezko fluxu-gunean dagoela adierazten duen erregistro-oharra dagoela egiaztatzen bada.

5. **AURKEZTEKO BESTE AGIRI BATZUK (aukerakoa).**

- Informazio fotografikoa.

3. **PARA OBRAS MENORES,** aquellas de sencilla técnica y escasa entidad constructiva y económica que no tengan elementos estructurales para su cimentación ni requieran de movimiento de tierras**:**

- Memoria descriptiva.
- Plano de situación.
- Plano de planta (o Croquis acotado de planta y sección tipo).

4. **PARA OBRAS MAYORES,** resto de obras**:** PROYECTO BÁSICO O CONSTRUCTIVO QUE CONTENGA COMO MÍNIMO:

- Memoria descriptiva
- Planos de situación y emplazamiento.
- Plano topográfico.
- Planos (estado actual y futuro) de planta con representación del deslinde del DPMT y su zona de servidumbre de protección, a escala.
- Planos de sección (estado actual y futuro).
- Presupuesto.
- Para todas las actuaciones en zona de flujo preferente y en situación básica de suelo urbanizado:
  - Declaración expresa por parte del solicitante de que conoce y asume el riesgo existente en la nueva edificación y las medidas de protección civil aplicables al caso, con independencia de las medidas complementarias que estime oportuno adoptar para su protección.

En su caso, la Agencia autorizará las actuaciones solicitadas con la condición de que el promotor disponga del certificado del Registro de la Propiedad en el que se acredite que existe anotación registral indicando que la construcción se encuentra en zona de flujo preferente.

5. **OTRA DOCUMENTACIÓN A APORTAR (opcional).**

- Información fotográfica.

945011700

Boulevard eraikina - Edificio Boulevard
Gamarrako atea kalea 1A, 11. solairua
C/ Portal de Gamarra 1A, planta 11
01013 Vitoria-Gasteiz (Araba/Álava)

Urkixo zumarkalea 36, 7. solairua
Alameda Urquijo 36, planta 7
48011 Bilbao (Bizkaia)

Intxaurrondo kalea 70, 1. solairua
C/ Intxaurrondo 70, planta 1
20015 Donostia/San Sebastián
(Gipuzkoa)

## 6 IZAPIDEAK

Beharrezko eskaera eta agiriak jasotakoan, honako izapide hauek egiten dira:

1. Datuen egiaztapena, agirien azterketa eta dokumentuen eskaera, beharrezkoa balitz.
2. Eragin ekologiko eta hidrauliko posibleen ebaluazioa, bai eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa beharrezkoa den baloratzea ere.
3. Txostena eskatzea Itsasertzetako Zerbitzu Probintzialari eta interesgarri irizten diren beste organismo, unitate edo erakundeei.
4. Arrazoibiderik badago, pertsona edo erakunde interesdunari igortzeko ahalbidea aintzat hartuko da.
5. Tokian alderaketa egitea.
6. Txosten teknikoa.
7. Pertsona edo erakunde interesdunei audientzia ematea hala badagokio.
8. Ebazpena.

Txostenaren izapideak amaiturik, Uraren Euskal Agentziak egoki iritzitako zaintza-, ikuskapen- eta egiaztapen-lanak egingo ditu ebazpena betetzen dela bermatzeko.

## 6 TRAMITACIÓN

Recibidas la solicitud y documentación requeridas, se realizan los siguientes trámites:

1. Comprobación de los datos, examen de la documentación y requerimiento documental si fuera necesario.
2. Valoración de la posible incidencia ecológica e hidráulica, así como la valoración de si cabe procedimiento de Evaluación de Impacto Ambiental
3. Petición de informe a la Demarcación de Costas y otros que se consideren de interés al organismo, unidad, institución o entidad.
4. En caso de que haya alegaciones se valorará la posibilidad de remitirlas a la persona o entidad interesada.
5. Confrontación sobre el terreno.
6. Informe técnico.
7. Audiencia a las personas o entidades interesadas en su caso.
8. Resolución.

Una vez terminada la tramitación del expediente, la Agencia Vasca del Agua realizará las labores de vigilancia, inspección y comprobación que estime oportunas para garantizar el cumplimiento de la resolución.

## 7 EBAZPENAREN ONDORIOAK

Ebazpenak amaituko du abiarazitako administrazio-prozedura.

Titularra aurreikusitako jarduerak egiteko legitimatzen duen agiria egilespen-ebazpena da, kontuan hartu gabe administrazio zentralak, autonomikoak edo tokikoak eska dezaketen edozein baimen. Ebazpenean titularra identifikatzen da, baimendutako jarduera eta lanen ezaugarriak ezartzen dira, eta bete beharreko baldintza eta epeak zehazten dira. Baldintzak zein epeak ez betetzea arau-haustetzat joko da edo baimena baliogabetzea ekarriko du.

Urari buruzko ekainaren 23ko 1/2006 Legeko 6.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko helegitea jarri ahal izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren Ingurumen eta Lurralde Plangintza sailburuaren aurrean, HILABETEko epean, ebazpen hau jakinarazten den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

## 7 EFECTOS DE LA RESOLUCIÓN

La resolución pondrá fin al procedimiento administrativo iniciado.

La resolución de otorgamiento es el documento que legitima a la persona titular para realizar las actuaciones previstas, con independencia de cualquier autorización que pueda ser exigida por otros organismos de las Administraciones Central, Autonómica o Local. En la resolución se identifica al titular, se establecen las características de actuación y trabajos que se autorizan, las condiciones y plazos que deben cumplirse. El incumplimiento del condicionado o de los plazos es causa de infracción o revocación de la autorización.

La resolución incorporará un pie de recurso en el que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 6.4 de la Ley 1/2006, de 23 de junio, de Aguas, contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera del Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en el plazo de UN MES, a contar desde el día siguiente a la notificación de esta Resolución.

## 8 EBAZTEKO EPEAK

Babes-zorpeko eremua erabiltzeko baimenak ematen diren ala ez ebazteko gehieneko epea 4 hilabete izango da, eskaera aurkezten den datatik zenbatzen hasita.

Aurreko atalean adierazitako epea igarotzean, ebazpenik eman ez bada, babes-zorpeko eremua erabiltzeko baimen-eskaera gaitzetsitzat joko da.

## 8 PLAZOS PARA RESOLVER

El plazo máximo para resolver el otorgamiento de las autorizaciones de uso en la zona de servidumbre de protección será de 4 meses desde la fecha de presentación de la solicitud.

Transcurrido el plazo señalado en el apartado anterior sin haberse dictado resolución la solicitud de autorización de uso en la zona de servidumbre de protección se entenderá desestimada.